DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Bulego Teknikoa
Oficina Técnica

## AURRETIAZKO KONTSULTA

**Oinezkoentzako eremuetara sartzeko araudia jasotzen duen udal ordenantza aldatzea**

Durangoko Udalak oinezkoentzako eremuetara sartzeko araudia jasotzen duen udal ordenantza aldatzeko prozedura hasteko asmoa du, udalerriko oinezkoen lehentasuneko eremuen kudeaketa eguneratzeko eta egungo mugikortasun- eta espazio publikoaren eredura egokitzeko.

Aldaketaren bidez, oinezkoentzako eremuetan sartzeko baldintzak, baimenak, salbuespenak, zamalanetarako baldintzak, zerbitzu publikoen eta larrialdietako ibilgailuen sarbidea, egoiliarren eta garajeen sarbidea eta kontrol-sistemen erabilera modu argiagoan arautu nahi dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluak honako hau ezartzen du:

"1.- Lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da, administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arau batek uki ditzakeen subjektu eta antolakunderik adierazgarrienen iritzia jasoko da, honako hauei buruz:"

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
b) Onartzeko beharra eta egokitasuna.
c) Arauaren helburuak.
d) Araugintzarako eta ez-erregulaziorako izan daitezkeen ordezko irtenbideak.

## CONSULTA PREVIA

**Modificaci n de la ordenanza municipal reguladora del acceso a zonas peatonales**

El Ayuntamiento de Durango tiene previsto iniciar el procedimiento de modificacion de la ordenanza municipal reguladora del acceso a zonas peatonales, con el fin de actualizar la gestion de los mbitos de prioridad peatonal del municipio y adaptarla al actual modelo de movilidad y espacio publico.

Mediante la modificacion se pretende regular de forma m s clara las condiciones de acceso a las zonas peatonales, las autorizaciones, exenciones, condiciones de carga y descarga, acceso de servicios publicos y veh culos de emergencia, acceso de residentes y garajes, as como la utilizacion de sistemas de control.

El art. 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Comun de las Administraciones Publicas establece:

“1.- Con car cter previo a la elaboracion del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciar una consulta publica, a traves del portal web de la Administracion competente en la que se recabar la opinion de los sujetos y de las organizaciones m s representativas potencialmente afectados por una futura norma acerca de:”

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
b) La necesidad y oportunidad de su aprobacion.
c) Los objetivos de la norma.
d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

### 1. Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak

Udalerrian oinezkoentzako eremuak eta oinezkoen lehentasuneko espazioak sendotzen ari dira, bide-segurtasuna, irisgarritasuna, bizikidetza eta espazio publikoaren kalitatea hobetzeko. Bilakaera horrek beharrezko egiten du eremu berri posible eta sarbideen araudia eguneratzea, baimendutako ibilgailuen erregimena, erabilera-baldintzak eta kontrol-irizpideak modu argian jasotzeko.

Testuinguru honetan, beharrezkoa da indarrean dagoen udal-ordenantza eguneratzea, espazio horiek arautzeko behar berrietara egokituz eta bertan txertatuz sarbide-araubidea, baimendutako ibilgailuak, erabilera-baldintzak eta kontrol-, kudeaketa- eta jarraipen-irizpideak.

Araudia berrikusteak aukera eman behar du egoiliarren eta garajeen sarbidea, zamalanak, merkataritza- eta zerbitzu-jarduerak, larrialdiak, mantentze-lanak, udal zerbitzuak, pertsona mugikortasun urrituak eta bestelako baimen bereziak modu ordenatuan bateratzeko, oinezkoen lehentasuna eta segurtasuna bermatuz.

### 1. Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa

La evolucion del modelo urbano y de movilidad del municipio de Durango est  orientada a la consolidacion de zonas peatonales, espacios de prioridad peatonal y posibles futuras zonas de proteccion residencial o  mbitos de calmado de tr fico, tales como supermanzanas. Estas actuaciones persiguen mejorar la seguridad vial, la accesibilidad, la convivencia ciudadana y la calidad del espacio publico.

En este contexto, resulta necesario actualizar la ordenanza municipal vigente, adapt ndola a las nuevas necesidades de regulacion de estos espacios e incorporando de forma expresa el regimen de acceso, los veh culos autorizados, las condiciones de uso y los criterios de control, gestion y seguimiento.

La revision de la norma debe permitir compatibilizar de forma ordenada el acceso de residentes y garajes, las operaciones de carga y descarga, las actividades comerciales y de servicios, las emergencias, el mantenimiento, los servicios municipales, las personas con movilidad reducida y otras autorizaciones especiales, garantizando en todo caso la prioridad y seguridad peatonal.

### 2. Onartzeko beharra eta egokitasuna

Ordenantza aldatzea beharrezkoa eta egokia da oinezkoentzako eremuen funtzionamendua hobetzeko, baimen-prozedurak argitzeko, salbuespenak eta ordutegiak zehazteko, eta udalerriko eremu horietan sor daitezkeen sarbide- eta erabilera-gatazkak murrizteko.

Aldaketa honek udal jarduketa bat etortzea ahalbidetuko du mugikortasun jasangarriaren, irisgarritasun unibertsalaren, bide-segurtasunaren eta erdiguneko hiri-kalitatearen helburuekin, eta, aldi berean,

### 2. Necesidad y oportunidad de su aprobaci n

La modificacion de la ordenanza es necesaria y oportuna para mejorar el funcionamiento de las zonas peatonales, aclarar los procedimientos de autorizacion, definir excepciones y horarios, y reducir los posibles conflictos de acceso y uso en estos  mbitos del municipio.

Esta modificacion permitir  alinear la actuacion municipal con los objetivos de movilidad sostenible, accesibilidad universal, seguridad vial y calidad urbana del centro, ofreciendo al mismo tiempo

herritarrei eta jarduera ekonomikoei arau argiagoak emango dizkie.

reglas m s claras para la ciudadan a y las actividades economicas.

### 3. Arauaren helburuak

### 3. Objetivos de la norma

Ordenantzaren aldaketaren helburu nagusia da oinezkoentzako eta oinezkoen lehentasuneko eremuetako sarbide-erregimena eguneratzea, eremu horien izaera babestuz eta beharrezkoak diren sarbideak modu ordenatuan baimenduz.

El objetivo principal de la modificacion de la ordenanza es actualizar el regimen de acceso a las zonas peatonales y de prioridad peatonal, protegiendo la naturaleza de estos espacios y autorizando de forma ordenada los accesos que resulten necesarios.

Oinezkoentzako eremuak, sarbide-baldintzak eta baimen-motak argitzea.

Clarificar las zonas peatonales, las condiciones de acceso y los tipos de autorizacion.

Egoiliarren, garajeen, zamalanen, zerbitzu publikoen eta larrialdien sarbidea modu ordenatuan arautzea.

Regular de forma ordenada el acceso de residentes, garajes, carga y descarga, servicios publicos y emergencias.

Ordutegiak, ibilbideak, egonaldi-denborak eta salbuespenak zehaztea, beharrezkoa denean.

Definir horarios, itinerarios, tiempos de permanencia y excepciones cuando resulte necesario.

Kontrol-sistemak, baimen-prozedurak eta erabiltzaileen betebeharrak eguneratzea.

Actualizar los sistemas de control, los procedimientos de autorizacion y las obligaciones de las personas usuarias.

Oinezkoen segurtasuna, irisgarritasuna eta espazio publikoaren kalitatea bermatzea.

Garantizar la seguridad peatonal, la accesibilidad y la calidad del espacio publico.

### 4. Egon daitezkeen ordezko irtenbide erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak

### 4. Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias

**1. alternatiba: jarduketa ez-erregulatzailea**

**Alternativa 1: actuaci n no regulatoria**

Indarrean dagoen ordenantza mantentzea izango litzateke, eta soilik seinaleztapena indartuz, informazio-kanpainak eginez, barne-kudeaketako irizpideak ezarriz edo jarraibide operatiboak emanez jardutea, oinezkoentzako eremuetara eta oinezkoen lehentasuneko espazioetara sartzeko modua antolatzeko.

Consistir a en mantener la ordenanza vigente y actuar unicamente mediante refuerzo de la senalizacion, campanas informativas, criterios internos de gestion o instrucciones operativas para ordenar el acceso a las zonas peatonales y espacios de prioridad peatonal.

Aukera hori baliagarria izan liteke neurri osagarri gisa, baina ez luke ahalbidetuko esparru juridiko behar bezain argi eta egonkorra izatea espazio horietako sarbideen araubidea, baimenak,

Esta opcion podr a resultar util como medida complementaria, pero no permitir a disponer de un marco jur dico suficientemente claro y estable para regular de forma homogenea el regimen de

salbuespenak, erabilera-baldintzak, kontrola eta jarraipena modu homogeneoan arautzeko.

Era berean, araudia eguneratu ezean, mugatu egingo litzateke udalaren gaitasuna oinezkoentzako eremu berriak, oinezkoen lehentasuneko espazioak edo etorkizuneko bizitegi-babeseko eremuak finkatzeko, bai eta trafikoa baretzeko, bizikidetza hobetzeko eta espazio publikoa atseginago bihurtzeko neurriak udalerriko beste kale edo auzo batzuetara pixkanaka zabaltzeko ere.

**2. alternatiba: jarduketa erregulatzailea**

Oinezkoentzako eremuetara sartzea arautzen duen udal ordenantza aldatzea izango litzateke, udalerriaren hiri- eta mugikortasun-premia berrietara egokituz.

Aukera horrek indarrean dagoen arau-esparrua eguneratzea ahalbidetuko luke, eta argiago zehaztea eraginpeko eremuak, sarbide-araubidea, baimendutako ibilgailuak, erabilera-baldintzak, aplikatu beharreko salbuespenak eta kontrolerako, kudeaketarako eta jarraipenerako irizpideak.

Era berean, Udalari tresna juridiko egokia emango lioke dagoeneko dauden oinezkoen lehentasuneko espazioak babesteko, eta etorkizunean oinezkoentzako eremu berriak, bizitegi-lehentasuneko eremuak, trafikoa baretzeko bestelako espazioak ezartzeko aukera antolatzeko, bide-segurtasuna, irisgarritasuna, herritarren arteko bizikidetza eta espazio publikoaren kalitatea bermatuz.

Ondorioz:

Erabaki da kontsulta publikorako epe bat irekitzea, oinezkoentzako eremuetara sartzeko araudia jasotzen duen udal ordenantza aldatzeko prozedurari ekin aurretik. Kontsulta 2026ko ekainaren 1etik 2026ko ekainaren 15era bitartean egingo

accesos, autorizaciones, excepciones, condiciones de uso, control y seguimiento de estos espacios.

Asimismo, la ausencia de una actualizacion normativa limitar a la capacidad municipal para consolidar nuevas zonas peatonales, espacios de prioridad peatonal o futuros mbitos de proteccion residencial, as como para extender progresivamente medidas de calmado del tr fico, mejora de la convivencia y amabilizacion del espacio publico a otras calles o barrios del municipio.

**Alternativa 2: actuaci n regulatoria**

Consistir a en modificar la ordenanza municipal reguladora del acceso a zonas peatonales, adapt ndola a las nuevas necesidades urbanas y de movilidad del municipio.

Esta opcion permitir a actualizar el marco normativo vigente, definir con mayor claridad las zonas afectadas, el regimen de acceso, los veh culos autorizados, las condiciones de uso, las excepciones aplicables y los criterios de control, gestion y seguimiento.

Del mismo modo, permitir a dotar al Ayuntamiento de una herramienta jur dica adecuada para proteger los espacios de prioridad peatonal ya existentes y para ordenar la posible implantacion futura de nuevas zonas peatonales, mbitos de prioridad residencial, supermanzanas u otros espacios de calmado del tr fico, garantizando la seguridad vial, la accesibilidad, la convivencia ciudadana y la calidad del espacio publico.

En consecuencia:

Se acuerda la apertura de un per odo de consulta publica previa a la tramitacion de la modificacion de la ordenanza municipal reguladora del acceso a zonas peatonales. La consulta se realizar entre el 1 de junio de 2026 y el 15 de junio de 2026, ambos

da, biak barne, udalaren Parte Hartu webgunean iragarkia argitaratuz.

incluidos, mediante anuncio en la web municipal Parte Hartu.

I

Interesdunek beren ekarpenak aurkeztu ahal izango dituzte honako helbide honetan:

Las personas interesadas podr n presentar sus aportaciones en:

https://partehartu.durango.eus/

https://partehartu.durango.eus/

30652686B MIREIA ELKOROIRIBE (R: P4803400C)

30652686B MIREIA ELKOROIRIBE (R: P4803400C) 2026.05.29 13:59:15 +02'00'

Durangoko Alkatea